

Euskal oligarkiak ez du BBVA zuzentzen

Duela 150 urte (1857an) jaio zen Banco Bilbao (BB) delakoa euskal burgesiaren eskutik. Zenbait bat egiteren ostean, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA) bilakatu da, baina gaurko kudeatzaileek ez dute zerikusirik orduko burgesiarekin, ezta Neguriko oinordekoekin ere.

DANIEL UDALAITZ

BANCO BILBAO VIZCAYA

Argentariak (BBVA) euskal burgesiaren erroekiko lotura galdu du. Kontseiluko kide gehienak espainiarrak dira, eta horietatik bik baino ez dute euskal jatorria eta bizilekua. Erakundearen presidentea Francisco González (FG) galiziarra da, PPko Aznar presidentek Argentaria banku publikoko presidente izendatua, eta Euskal Herriarekin inolako zerikusirik ez duena.

Bankuaren euskal erroei dagokienez, geratzen diren aztarna bakarrak Bilboko Alde Zaharreko San Nikolas plazako egoitza, eta Gran Via hiribideko Banco Bilbaoren eta Banco de Vizcayaren presidentzien egoitzak dira. Gutxika egoitza horiek eta Bilboko beste zenbait zentro ixten ari dira Madrilgo egoitzaren mesederako, eta ondorioz Bizkaian hainbat lanpostu galdu da. Langileak mobilizatzen ari dira azken hilabeteotan. BBVAren higiezin salmenta politikak aurrera eginez gero, Bilboko zenbait egoitza enblematiko salmantan jar liteke. Egun, BBVAren bulego nagusiak Madrilen daude, eta bertan hartzen dira erakundearen zuzendaritza erabakiak.



BBVAk Madrilen duen dorreak zenbakiz bete ditu bere leihoak bankuaren 150. urteurrena oroitarazteko.

Industria finantzatzeko bankua

Bizkaiak, meatzetako aberastasun handiari, Bilboko portu estrategikoari eta industriari esker, berebiziko garrantzia izan zuen XIX. mendeko garapen industriaren hastapenetan. Industria garapen hori aurrera eramateko ezinbestekoa zen finantza erakunde bat sortzea. 1856ko martxoaren 7an, Bilboko 106 merkataria eta finantzari elkartu eta Isabel II.a erreginari bankua sortzeko baime-na eskatzea erabaki zuten. 1857ko maiatzaren 19an, gobernuaren baimena heldu zen. Egun horretakoa da Banco de Bilbaoren jaio-tza juridikoa.

Kapital harpidetza zortzi milioi errealekoa izan zen 2.000 errealeko akziotan, eta lehen akzionistak 106 merkataria eta finantzariak

izan ziren. Administrazio kontseiluko kideak ondokoak izan ziren: Pablo de Epalza, Pantaleón Aguirre, Mariano de Zabalburu, Gabriel María de Ybarra, Felipe de Uhagón, Benito de Escuza, Vicente de Arana, Pedro Antonio de Errazkin, Luis de Violete, Ezequiel de Urigüen eta Francisco

Bilbon Batzar Nagusiak baino ez dira egiten, legeak ezartzen baitu batzarrok egoitza soziala dagoen tokian egin behar direla. Horrek guztiak ez du esan nahi BBVAk euskal banku abertzalea izateari utzi dionik, izan ere, inoiz ere ez da halakorik izan, hemen azalduko dugun bezala.

“Kaudilloa”ren ezpatarengatik

BBVAk ez dio inoiz euskal banku abertzalea izateari utzi, inoiz ez baita abertzale izan. Gaur egun, duela 150 urte bezala, espainiar bokazioa du. Espainiar nazionalismoaren aldeko joera izan du beti, argi eta garbi. Bere garaian, orain bezala, monarkiarekin gustura egon zen, errepublika kritikatu zuen, Franco buruzagi zuela frankismoaren “gerra askatzailea” babestu zuen, eta Espainiako Gobernuen interesen zerbitzuan aritu izan da beti. Hara adibidea: 1957ko abuztuaren 24an Banco Bilbaoren lehen mendeurrena ospatu zen. Bankuaren presidentea zen Artecheko kondeak *Un siglo de vida del Banco de Bilbao (Banco de Bilbaoren mende bateko bizitza)* liburuan eskaintza bat idatzi zuen. Liburu haren ale zenbakituetakoa bat dago artikulua hau idatzi duenaren eskuetan.

Hona hemen bertan agertzen diren zenbait esaldi. “... Banco de Bilbaok, bete berri dituen ehun urteen talaiaitik, nazioaren bizitzaren mende oso baten panorama begira-

tu eta aztertu du, zenbaitetan gure hiribilduaren paisaiari arreta bereziaz begiratu, gure gizarteari, gure tokiko historiari, ibilera emankor etengabea duen gure itsasadarrari; baina, berehala, begiak Espainia ama hilezkorren bikaintasun, garaipen eta grinetara bideratzen...” Artecheko kondeak Bizkaia, Bilbora, Espainiako banku jarduerari, lagunei eta abarri eskaintzen die liburua, eta honela amaitzen du eskaintza: “...Espainiari, azkenik, garenaren eta egiten dugunaren arrazoi eta azalpen den horri, herriaren aparteko sakrifizioarekin eta “kaudilloa”ren ezpatarengatik egitandi berrietarako bidean dagoen horri eskaintzen dizkiot, Banco de Bilbaoren izenean, liburu honen orrialdeak...”.

Espainiar filosofia hori nagusitu zen Neguriko oligarkia zuten administrazio kontseiluetan, BB, BV eta BBVren garaian, baita BBVA den honetan ere, ez baitago apenas euskal jatorria duen inor lehendakari-tzan eta administrazio kontseiluan.

Euskal erroetatik ezer gutxi geratzen da: Bilboko San Nikolaseko egoitza eta BB eta BVarenak izandako egoitza presidentzialak

negozioak zituzten Sota eta Aznar familiak bultzatuta, Banco de Comercio delakoa sortu zen, hori ere Bilbon. Orduan sortu zen lehen bat egitea, 1901ean BBk Banco de Comercio delakoa bereganatu zuenean. Urte horretan bertan, beste bost banku sortu ziren Bilbon, besteak beste Banco Vizcaya; azken horren akziodun garrantzitsuenak ere Neguriko oligarkiako kideak ziren. BB eta BVren arteko norgehiagokak XX. mendearen amaierara arte iraun zuen; izan ere, 1988an BBk Sánchez Asiaín zuzendari zuela, eta BVk Pedro Toledo zuzendari zuela, bat egin zuten Banco Bilbao Vizcaya (BBV) sortuz.

Handik urte batzuetara, 2001ean, Argentariarekin bat egin zuen BBVA sortuz, eta horrek BBVren azken hondarrak kanporatzea ekarri zuen. Erakunde berriaren zuzendari, burtsan aditua den FG galiziarra izendatu zuten. Orain FGk industria alde batera utzi eta finantza negozio hutsera bideratu du arreta. Politika horren adierazgarri nabariena izan da BBVAk Iberdrola utzi izana. Ildo horretatik bideratu dira bankuen erosketak eta bereganatzeak, batez ere Latinoamerikan (Mexikon zehazki) eta Ipar Amerikan, non urte berean 7.410 milioi euroren truke Compass Bancshare-a bereganatu baitzuen. ■

Mac-Mahon. Lehen zuzendaria Ambrosio de Orbegoza izan zen.

Hala, 1857ko abuztuaren 24an hasi zen jardunean Estufa kalearen 7. zenbakian, San Nikolas plazaren alboan. Euskal Herriko lehen sukurtsala Gasteizen ireki zuen (1913). Berehala hedatu zen kanpora: Paris (1902), Londres eta Madril (1918), Bartzelona, Valentzia eta Madril (1920), Sevilla eta Tanger (1921).

Gaur egun, Amerikan ditu sukurtsal eta langile gehienak.

Bateratze prozesu etengabea

Bankuen bat egite prozesuak ez dira soilik egungo kontua. Euskal banku jardueran hazteko helburua duten bateratzeen filosofia hori hasierahasieratik egon da presente, XIX. mendetik. BBk ez zuen 1891ra arte lehiakiderik izan; urte hartan, ontzi